

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak herritarren zahartze osasuntsua sustatzeak duen garrantzia azpimarratu du

*Egindako mintzaldiaren bidez hasi du Medikuntza Geriatrikoaren Espainiako Sozietatearen 6. bilera; aste honetan izango da Iruñean.*

Jueves, 24 de abril de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak herritarren artean zahartze osasuntsua sustatzearen garrantzia azpimarratu du gaur arratsaldean. Hala, hirugarren adinera "ahalik egoera onenean helduko gara, gaitasun fisiko, psikiko eta sozial gehienak mantenduta, autonomia izan eta nork bere bizitza egiteko".

Hitz horiek esanda ireki du Barcinak [Medikuntza Geriatrikoaren Espainiako Sozietatearen 6. bilera](#). Apirilaren 24tik 16ra, estatuko eta nazioarteko 300 aditu baino gehiago elkartuko ditu, "Ebidentzian oinarritutako geriatria" lelopean.

Mintzaldian, Lehendakariak esan du Nafarroak munduko bizi-itxaropenik handienetakoa duela (83,4 urte). Gaur egun, Nafarroako biztanleen % 18,2k 65 urte baino gehiago ditu eta, NBERen eta ELGAREN 2050erako aurreikuspenen arabera, ehunekoa % 30 baino handiagoa izan liteke eta, Espainian, % 40 izatera ere irits liteke.

Bizitza luzatzea, Lehendakariaren ustez, "itxaropentsua eta biziki positiboa da", baina osasun-sistema birbideratu egin behar dela aitortu du, paziente berriaren ezaugarriei, adinez nagusiagoa izango delako, eta gaixotasun kronikoen hazkuntzari erantzuteko.

Besteak beste, Yolanda Barcinak zahartze osasuntsua sustatzea aipatu du neurri gisa: bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako ariketa fisiko kontrolatua eginda, elikadura osasungarria izanda, inguruarekin eta estimulu kognitiboarekin harreman onak izanda, besteak beste.

Bileran, parte-hartzaileek berritasunak eta geriatriako adituen erronka nagusiak aztertuko dituzte, esate baterako, adinekoa osteoporosi, erorketa eta hausturekin nola konpontzen den, muturreko bizitza luzea, 65 urtetik gorako % 4 eta % 17ri eragiten dien hauskortasuna eta adinekoen txertoak.

Bilera antolatu duen batzodearen burua da Nicolás Martínez Nafarroako Ospitaleguneko medikua.